

## **Andoaingo Udal Musika Eskolako Abesbatza**

Andoaingo musika eskolako talde hau 2006/2007 ikasturtean sortu zen.

Musika eskolako ikasleek osatzen dute, gehienek instrumentu bat jotzen dutelarik. Taldearen osatzea urtero desberdina izaten da, ikasleen joan etorria dela eta.

7 urterekin hasten dira talde batean eta 8 urteekin beste batera pasatzen dira. 9 urte egiten dituztenean abesbatza aukeran dute beraien hezkuntza musikalaren osagarri bezala.

Momentu honetan 45 partaide ditu 9 eta 19 urte bitartekoak bi taldeetan banaturik.

Kontzertu desberdinak eskaini dituzte, bai musika eskolak antolatzen dituenetan baita herri mailako jaialdietan. Ordizian, Tolosan, Seguran, Zarautzen, Euskal Herriko musika eskolak antolaturiko Musikalean, "Argi Beltza" ikuskizunean Tirri Tarrarekin (Ekainak 2010), Donostiako Udaberri kontzertuetan...

Estilo desberdinetako errepertorioa lantzen dute eta beraien helburua kantatzean sentitzen dutena entzulegoari helaraztea da. Lanean ilusioz dihardute beraien etorkizuneko emanaldiak prestatzen.